



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak lan prekarietatearen aurrean **eRECakzionatzera** deitu ditu gazteak

- **Enplegu duin** bezala ulertzen dutena adieraztera animatzen dituen **lehiaketa** abiatu du
- Ekimena **maiatzaren 30ean** bukatuko da eta 1.300€ banatuko ditu saritan

2014ko martxoaren 4an. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak bideo lehiaketa antolatu du, *RECacciona: gazteok enplegu duina!* lelopean, gazteak prekarietateari buruz duten ikuspuntua ematera animatzeko, enplegu duintzat ulertzen dutena ezagutzera emateko eta gaur egungo egoera hobetzeko bere proposamenak gizarteratzeko.

Lehiaketan **30 urtetik beherako** edozein gaztek parte hartu dezake, gutxienez bi pertsonaz osatutako taldetan. Bideoak **maiatzaren 30a** baino lehen bidali behar dira, lau minutuko iraupena izan behar dute gehienez eta mota guztietakoak izan daitezke (argazki muntaia, bideo-komikia, dokumentala, ikus-entzunezko poesia...), bai eta edozein gailurekin grabatua ere (argazki kamera, bideokamera, sakelekoa...). Hori bai, honako gaia izan behar da lan guztien ardatza: gazteon gaur egungo lan prekarietatea eta **enplegu duina sustatzeko beharra eta moduak**.

Horretarako, honako galdera motak izan daitezke bideoen abiapuntua: zein da gaur egungo lan errealitatea gazteen artean? Zer lan mota behar du gazteriak? Zer aldatu behar da? Zer proposatu daiteke egoera aldatzeko? Modu honetan, gazteontzat enplegu duina sustatzearen garrantzia ikustaraztea da Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren helburua, bai eta **enplegu duinari buruz ikuspuntu ezberdinak** jaso eta zabaltzea ere.

Gazte erakundeak enplegu ala gizarte proiektuetan gastatzeko 1.000 euroekin sarituko du lanik onena. Gainera, 300 euroko bigarren sari bat egongo da, publikoak banatuta. Bozkatzan dutenen artean, halaber, 50€-ko txartela zozketatuko du, bidezko merkataritzan edo nekazaritza ekologikoan gastatzeko. Oinarriak dagoeneko eskuragarri daude Kontseiluaren webgunean, www.egk.org.